ERRAMU - IGANDEA —B—



Elizpean

V/. Hosanna Dabiden semeari!



Oharra

Senideok: Garizumeak Jaunaren Misterioaren atarian jarri gaitu: Jesukristoren Nekaldi, Heriotza, Biztuera, Zeruratze misterioa. Hori beteteko sartu zan Jesus Jerusalemeko bere uri santuan. Orain egingo doguna sarrera ha gogoratzea ta barritzea da; eta Jesusi kurutzeraino jarraitzeko gogoa barriztatuko dogu.

Abadeak

Egin daigun otoitz

Indartu, Jauna, Zugan uste on dabenen fedea
eta entzun bihotz onez gure otoitzak:
gaur Kristo Erregeri erramuekaz laguntzen deutsogunok
Beronengan iraun daigula,
egintza onen frutuak emon daiguzan.
Errege bizi da-ta gizaldi eta gizaldietan.
—Amen.

B urtean

† Jesukristoren ebanjelioa san Markosen liburutik (11, 1-10)

Jesusek Betfage eta Betania aldetik Jerusalemera hurreratzean, Olio-mendi ondoan bere ikasleetako bi bialdu ebazan, esanez: «Zoaze aurreko auzo horretara, eta han sartzean, astakume bat aurkituko dozue lotuta, oraindino gainean inor jarri ez jakona. Askatu eta ekarri eizue. Eta inork zer darabizuen esaten badeutsue, erantzun; “Jaunak behar dau, eta berehala bihurtuko dau hona”».

Joan ziran, ba, eta astakumea ate ondoan lotuta aurkitu eben, kanpotik bidean; eta askatu eben. Han ziran batzuk esan eutseen: «Zer darabilzue astakumea askatzen?» Eurek, Jesusek esana erantzun, eta eroaten itzi eutseen.

Eroan eben astakumea, eta euren soinekoak ezarri eutsoezan; eta Jesus gainean jarri zan. Askok euren soin-gainekoak zabaldu ebezan bidean; beste batzuek, barriz, landetan ebagitako adarrak. Eta aurretik eta ondoren joiazenek oihuka inoen: «Hosanna! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Bedeinkatua, gure aita Dabidengandik datorren erreinua! Hosanna Goi-goikoari!»

Oharra
Jesus goratu eban jendetzearen antzera, lagundu deiogun orain Jaunari pozez kantari.

Sarrera-abestia

Hosanna! Hosanna! Hosanna!
Hosanna! Zeruen goreenetan!

Dabid erregearen semea dogu Jesus: **Hosanna!**
Jerusalemen sartzean danok gorets daigun: **Hosanna!**
Aintza ta goralpena *zuri, Jesus, Jauna!*

Hosanna! Hosanna! Hosanna!
Hosanna! Zeruen goreenetan!

Jerusalenen sartuz agurtu dau Uriak: **Hosanna!**
Abarrak eskuetan, nagusi ta txikiak: **Hosanna!**
Aintza ta goralpena *zuri, Jesus, Jauna!*

Hosanna! Hosanna! Hosanna!
Hosanna! Zeruen goienetan!

Agintariak bildurrez, xumeenak pozez: **Hosanna!**
Goratzen dabe Jesus euren Salbatzaile lez: **Hosanna!**
Aintza ta goralpena *zuri, Jesus, Jauna!*
Hosanna! Hosanna! Hosanna!
Hosanna! Zeruen goienetan!

Behin elizan sartuta...



(Eta otoitza esanez hasten da Mezea)

Egin daigun otoitz

Jainko ahalguztidun betikoa,
gizaki guztiei apaltasun-bidea erakusteko,
gure Salbatzailea gizon egitea
eta kurutzean hiltea nahi izan dozu.
Egizu, arren,
haren Nekaldiko irakaspenak gogoan hartu daiguzela,
beragaz batera biztu gaitezan.
Zurekin eta Espiritu santuarekin batean,
Jainko ta errege bizi da-ta, gizaldi eta gizaldietan.
—Amen.

Irakurgaien aurretiko oharra

Gaurko irakurgaiotan Jesusen bizitzako azken uneetan sartzeko aukerea izango dogu. Hausnartu daigun ea zergaitik sufritu behar dauan horrenbeste Jainkoaren morroiak, eta nondik jatorkozan sufrimenduak. Ez daigun prisarik izan; eskatu daigun otoizgiroan entzuteko grazia...

Isaias Profetaren liburutik (Is 50, 4 7)

Ikasi baten mihina emon deust nire Jaunak,
berba bizkorgarria emon deioedan nekatuei;
belarria zuhur jarten deust goizero,
ikasiak lez entzun dagidan.
Jaunak belarria edegi deust,
eta nik ez deutsat gogorrik egin; ez dot atzera egin.

Bizkarra ipini deutset joten ninduenei;
matrailea, bizarretik tiraka ebilkidazanei.
Ez deutset aurpegia alboratu irain eta txistuei.
Neure Jauna neban laguntzaile;
horregaitik ez nintzan lotsatu;
horregaitik ipini neban aurpegia, harri gogor lez;
eta badakit ez nazana lotsagarri geldituko.

Jaunak esana!

Erantzun salmoa Sal 21, 8 9. 17 18a. 19 20. 23 24

R/. Ene Jainko, ene Jainko,
zergaitik itzi nozu eskutik?

R/. Ene Jainkoa, non zagoz zu?
Zelan eskutik itzi nozu?



Ikusten nabenak holan dabilkidaz barreka,
ezpain kinuka eta buru eraginka
«Jaunagan dau uste on, salbau begi;
maite badau, onik atara begi». **R/.**

Txakur taldeak nauka inguraturik,
gaizto taldeak erdian harturik.
Esku oinak zulatu deustez,
hazur guztiak bat banatu daikedaz. **R/.**

Nire jantziak eurentzat banatzen dabez,
nire soinekoa zotz egin dabe.
Zu, ostera, Jauna, ez egon urrun,

Zu, neure indar, zatorkidaz arin lagun. **R/.**

Nire senideei zure izena deutset iragarriko,
batzarraren erdian zaitut goretsiko.
«Goratu egizue Jauna, bildur deutsazuenok, †
Jakob en seme guztiok, ospatu egizue,
izan Haren bildur, Israelen seme guztiok». **R/.**

San Paulo Apostoluak Filipotarrei (2, 6-11)

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanarren,
ez eutson gogor eutsi Jainkoagaz bardin izateari;
bestelan baiño: bereaz hustu egin zan,
morroi izaerea hartuz, eta beste edozein lez agertuz.
Eta gizon lez agerturik, apaldu egin eban bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino, kurutzeko heriotzaraino.
Horregaitik, Jainkoak goratu egin eban,
eta izen guztien gaineko izena emon eutson,
Jesusen izenera belaun guztiak makurtu daitezan,
zeruan, lurrean eta lurpean,
eta mihin guztiak autortu dagien:
«Jesukristo Jauna da», Aita Jainkoaren aintzarako.

Jaunak esana

Nekaldiaren irakurketa aurretik...

AINTZA, JESUS, ZURI BETI: ZU ZARA GURE ARGI!

Jaunaren Nekaldia (laburra) /B

† Jesukristo gure Jaunaren Nekaldia san Markosen liburutik

K.- Eguna argitu baizen laster, abadeburu, herriko zahar eta lege-maisuak batu ziran —Batzar Nagusi osoa — eta, erabagia hartu ondoren, Jesus loturik eroan eta Pilatoren eskuetan jarri eben. Pilatok itaundu eutsan:

S.- «Zu al zara juduen erregea?»

K.- Jesusek erantzun eutsan:

† «Zeuk dinozu».

K.- Abadeburuek salatu eta salatu ziharduen haren aurka. Pilatok itaundu eutsan barriro:
S.- «Ez al dozu ezer erantzun behar? Begira zenbat salakuntza egiten daben zure aurka».

K.- Baina Jesusek ez eutsan gehiago erantzun, eta harriturik egoan Pilato. Pazko-jai guztietan preso bat askatu ohi eban Pilatok, herriak eskatzen ebana. Bazan espetxean Barrabas izeneko bat, matxinadakoan giza hilketa bat egin eben beste matxinatuekaz batean. Igon eban jenteak Pilatoren jauregira eta ohitura ebana emoteko eskatzen hasi ziran. Pilatok erantzun eutsen:

S.- «Gura al dozue juduen erregea askatzea?»

K.- baekian-eta abadeburuek bekaitzez emon eutsoela Jesus. Baina abadeburuek jentea berotu eben, Barrabas askatzeko eskatu egian. Pilatok barriro itaundu eutsen:

S.- «Eta zer egin behar dot juduen errege esaten deutsazuen Horregaz?»

K.- Hareek, orduan, deadarka:

S.- «Josi kurutzean!»

K.- Eta Pilatok:

S.- «Zer oker egin dau, bada?»

K.- Hareek, gero eta deadar handiagoz:

S.- «Josi kurutzean!»

K.- Pilatok, orduan, jenteari atsegin emoteagaitik, Barrabas askatu eutsen eta Jesus, zigortuazo ondoren, hareen eskuetara emon eban, kurutzeratu egien.

Arantzaz egindako koroia ipini eutsoen.

K.- udariek Gobernadorearen jauregi barrura eroan eben Jesus eta gudari-talde osoa batu eben. Purpurazko jantzia ipini eutsoen soinean eta arantzaz egindako koroia buruan. Eta agurka hasi jakozan:

S.- «Agur, juduen erregea!»

K.- Kainaberaz buruan joten eben eta txistua botatzen eutsoen eta, belaunikaturik, aurrean ahuspez jarten jakozan. Nahiko iseka egin ondoren, purpurazko jantzia kendu eta bere soinekoak jantzi eutsoezan. Gero, atara eta kurutzean josteko eroan eben.

Golgota izeneko lekura eroan eben Jesus.

K.- Solotik etxerakoan handik joian bat, Simon Zirenekoa, Alexandro eta Ruforen aita, kurutzea eroatera behartu eben. Golgota izeneko lekura eroan eben Jesus (Golgotak "Buru-hazur" esan gura dau).

Gaizkileen kidekotzat jo eben.

K.- Mirraz nahastutako ardoa eskeini eutsoen, baina ez eban hartu. Kurutzean josi eben, eta gudariek haren jantziak banatu ebezan, zer norentzat zotz eginez. Bederatziak ziran kurutzeratu ebenean. Honan inoan kondenaren arrazoia adierazoten eban idazkunak: JUDUEN ERREGEA. Jesusegaz batean gaizkile bi kurutzeratu ebezan, bata eskuman eta bestea ezkerrean. Honan bete zan Liburu Santuak dinoana:

«Gaizkileen kidekotzat jo eben».

Besteak salbau jozak,
eta bere burua ezin salbau!

Handik igaroten ziranek irain egiten eutsoen Jesusi, buruari eragin eta esanez:

S.- «Hara, santutegia desegin eta hiru egunetan barriro eregiten ei dauana! Salbau egik heure burua! Jaitsi hadi kurutzetik!»

K.- Era berean, abadeburuek ere, lege-maisuekin batean, burla egiten eutsoen, esanez:

S.- «Besteak salbau jozak, eta bere burua ezin salbau. Mesias eta Israelgo erregea ei dok; jaitsi daitela orain kurutzetik, ikusi eta sinestu dagigun».

K.- Beragaz kurutzean josiak egozanek ere irain egiten eutsoen.

Jesusek, deadar handia eginez,
azken arnasa emon eban.

K.- Eguerdian, ilundu egin zan lurbira osoa hirurak arte. Hiruretan, Jesusek oihu handiz esan eban:

† «Eloi, Eloi, lema sabaktani»,

K.- —hau da,

† «Ene Jainko, ene Jainko, zergaitik itzi nozu?»—.

K.- Hau entzutean, han egozan batzuek esan eben:

S.- «Eliasi deika ziharduk».

K.- Orduan batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kainabera bati muturrean jarriz, edatera

emon eutsan, esanez:

S.- «Egon, ea jatorkon Elias, kurutzetik jaistera».

K.- Baina Jesusek, deadar handia eginez, azken arnasa emon eban.

Hemen belauniko jarri eta egonalditxo bat egiten da.

Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zan, goitik beheraino. Aurrean egoan erromatar ehuntariak, zelan hil zan ikustean, esan eban:

S.- «Benetan, gizon hau Jainkoaren Semea zan».

Homilia

../...

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

† Senideok: Jesusi Jerusalemen sartzen lagundu deutsogunok badakigu zein makalak garan eta huts egin geikena. Jo daigun, ba, Jainkoaren eskuzabaltasunera:

—Bere seme-alaba gaituan Elizearen alde: Gure Elizbarrutiaren Egitasmoak danok, bakotxak bere neurrian, geuretu daiguzan. *Eskatu deiogun Jaunari*.

—Sinismeneko misterioen atarian Jauna goresten dihardugunok, hari eguneroko kurutzeagaz jarraitzeko gauza izan gaitezan. *Eskatu deiogun Jaunari*.

—Aste Santuko egunotan, sinismen misterioak

geuretzeko, otoizgiroan bizi izaten ahalegindu gaitezan, *Eskatu deiogun Jaunari*.

—Jesusek geugaitik bizia emon dauan lez, geu ere ahalegindu gaitezan sinismena ospatzen ta iragarten, geure ondokoak eta kristau alkarteak adoretzeko eran, *Eskatu deiogun Jaunari*.

† Hainbeste maite gaituzun Jainkoa: emoiguzu adore zure Semearen bideari jarraitzeko gure senide guztien onerako. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
—Amen.

Oparien gaineko otoitza
Jainko Jauna, zure Semearen Nekaldiari esker
betorkigu laster zure parkamena;
eta elizkizun honetan gaurkotzen dogun
Jesukristoren opari bakar honen bidez,
emoiguzu zeure errukia,
gure pekatuek merezi ez badabe ere.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
— Amen.

Jaunartzerako deia

Jerusalemen aintza artean sartu dan Jesusen ikasle ta jarraitzaile gara geu ere. Baina badakigu zer egin eutsoen orduan «Hosanna!»-ka laguntzen eutsoen guztiek: bertan behera itzi eben. Ez gaitezan izan euren antzeko. Hurreratu gaitezan Jesusengana, eta berak besarkatu gaizala estu-estu, bere antzera geuk ere geure bizia Jainkoari eskeini deiogun, gure maiteen alde emonaz.

Jaunartze ondorengo otoitza
Zure doai santuz aseturik,
otoizka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzeari esker emon deuskuzu
sinisten doguna itxarotea;
haren biztuereari esker, egizu
gure azken helburura heldu gaitezala.
Errege bizi da-ta, gizaldi eta gizaldietan.
— Amen.

OHARRAK: Ordutegia